



BARREN

TOKIKOM

Herritarrak argibide eske





2020ko elektrogailuen Renove Plana

130€ra arteko dirulaguntzak! Agortu arte.



MILAR BIRE

Ubitarte, 11
943 741 487
bire@milar.es

irten eta begiratu!

etxegain

BIZIGUNEA



4. SOLAIRUA
2 LOGELA - 2 BAINU
HORNITUTAKO SUKALDEA,
TERRAZA
140.000 €

WWW.ETXEGAIN.COM

GE
grupo eibar
inmobiliario

689 66 08 01



AZKENENGO BI
ETXEBIZITZA, BEHEKO
SOLAIRUAN. TXOKOAREKIN
ETA GARAJERA SARBIDE
ZUZENAREKIN.
195.000 euroan hasita

E: comercial@grupoeibar.com
San Francisco 32, bajo • 20870 Elgoibar
E: comercial@grupoeibar.com 943 31 66 11

OBRA FINANZIADA POR
bankoa | Groupe
Crédit Agricole

XABI ALBIZU, Belaustegi jatetxea

“Belaustegin garrantzia ematen diogu euskaraz dakien jendea kontratatzeari; plus bat ematen digu horrek”



◆ Zer moduz zaudete?

Orain ondo gaude. Jendeak oso ondo erantzun du eta lan asko egingen ari gara. Eguneko menua jatera jende asko etortzen da, kartara jatera ere animatu da jendea eta ezkontzak ere badirudi irailetik aurrera berreskuratuko

ditugula. Jendea oso animatuta ikusten dugu, eta pozik gaude. Uste dut mendian eta aire librean egoteak ere laguntzen digula, eta horrek jendea erakartzen duela. Orain dela pare bat hilabete dena beltz ikusten nuen, ezjakintasun egoera hartan oso gaizki pasatu nuen, baina orain, asko lasaitu naiz.

◆ Euskaraldiaren bigarren edizioan parte hartuko duzue?

Gure esku dagoena egiteko prest gaude. Barneratuta daukagu euskaldunak garela eta euskaraz hitz egin behar dugula.

◆ Zein leku dauka euskaraz zuen jatetxean?

Langile gehienok euskaraz pentsatzen dugu eta ez zaigu kostatzen euskaraz egitea. Gure artean euskaraz egiten dugu gehienbat, telefonoa euskaraz erantzuten dugu eta aurrez aurreko harremanetan ere lehen hitza beti euskaraz egiten dugu. Gero bezeroaren arabera moldatzen gara. Badaude gutxi batzuk euskara entzutean aurpegi arraroa jartzen dutenak, baina gure bezero gehienak euskaldunak dira eta ondo hartzen dute.

◆ Idatzizko euskarriak zein hizkuntzatan dituzue?

Karta euskaratu egin dugu eta orain bi hizkuntzatan dago. Lehen, ohituraz beti gaztelaniazkoa ematen genien bezeroei, eta norbaitek eskatzen bazuen bakarrik ematen genion euskarazkoa. Orain karta bi hizkuntzatan daukagu; hor egin dugu aurrerapauso bat, baina eguneko menua gaztelaniaz bakarrik idazten dut. Iosu [Mugertza] urte askoan bizi izan da kanpoan, eta menuak errazago osatzen ditu gaztelaniaz, eta nik hark esan bezala idazten ditut, beti korrika eta presaka ibiltzen naitelako. Batzuek eskatu izan didate euskaraz ere jartzeko, eta saiatu beharko naiz. Sare sozialetan ere presente gaude, eta bi hizkuntzak erabiltzen ditut.

◆ Langileak kontratatzerakoan kontuan hartzen duzue euskaraz dakien edo ez?

Bai, bai, oso kontuan hartzen dugu hori. Belaustegin garrantzia ematen diogu euskaraz dakien jendea kontratatzeari; nire ustez horrek plus bat ematen digu.



facebook.com/euskaraldiaelgoibar



twitter.com/EuskaraldiaElg2



instagram.com/euskaraldiaelgoibar



[T.me/euskaraldiaelgoibar](https://t.me/euskaraldiaelgoibar)

IDOIA OIARZABAL, Arauri lurrindegia

“Euskaraz ez dakienari ere euskaraz egiten diogu lehen hitza, baina gero bere hizkuntzara moldatzen gara”



◆ Zer eragin izan du COVID-19ak zue- nean?

Hilabete eta erdiz denda itxita eduki behar izan dugu, eta hori izan da guretzat txarrekoa. Maiatzaren 4an eman ziguten berriz zabaltzeko aukera, baina maiatza oso arraroa izan zen

eta ez zegoen mugimendu handirik ez dendan eta ezta kallean ere. Orain ondo gaude; beste normaltasun batean ari gara. Azken hilabeteetan koronabirusari buruz bakarrik hitz egin dugu, eta orain hasi gara berriz ere eguraldiari buruz hitzketan. Beraz, jendea lasaiago dago, eta gu pozik lanean ari garelako.

◆ Euskaraldiari tarte bat eskaintzeko moduan zaudete ala une honetan beste lehentasun batzuk dituzue?

Bai, badaukat interesa Euskaraldian eta informazioa jasotzeko zain nago. Niri iruditzen zait Euskaraldia moduko ekimenetan parte hartu behar dela. Ez dakit zer egin ahal izango dugun, baina horrelako ekimenak positiboak dira.

◆ Lanean baduzue zehaztuta euskara irizpiderik?

Ez daukagu ezer jasota arau bezala, baina zaintzen dugu euskara. Telefonoa euskaraz erantzuten dugu, eta harrera eta agurra ere euskaraz egiten ditugu. Nik uste dut hori berez iritertzen zaigula euskaraz, inolako ahalegin berezirik egin gabe. Euskaraz ez dakienari ere euskaraz egiten diogu lehen hitza, baina gero, bere hizkuntzara moldatzen gara, azken batean komunikatzea ezinbestekoa delako. Euskaraz dakienarekin dudarik gabe dena euskaraz egiten dugu, eta ez dakienarekin ahal dugunera arte bai, baina gero bere hizkuntzara egokitzen gara. Batzuetan gertatu izan zait norbaitekin gaztelaniaz egin eta josterakoan konturatzea euskaraz bazekiela, eta horrek amorruta ematen dit. Bezero gehienek ulertzen dute euskaraz, askotan gutxien uste duzunak ere ulertzen du, baina erabilera beste kontu bat da. Gaztelaniaz egiteko ohitura daukate askok.

◆ Kartelak eta idatzizko euskarriak zein hizkuntzatan dituzue dendan?

Normalean hornitzaileek bidaltzen dizkigute idatzizko euskarriak beraiek eginda, eta gehienak gaztelaniaz izaten dira. Ingelesez ere hasi naiz jasotzen, baina euskarazkorik ez. Sare sozialetan, baina, ni ibiltzen naiz eta saiatzen naiz bi hizkuntzatan idazten.

JUAN LUIS MUGERTZA

Idazlea



Barraka

ezkutatzen zituzten balinak eskopetaren zuloan sartzen genituen. Gure gustuko balinek kopa itxura zuten, baina horrelakoak nagusiek erabiltzen zituzten txori gizaok akabatzeko.

Eskopetaren zuloan balina behin sartutakoan, ukondoa egurraren gainean pausatu, ezkerreko begia itxi, eta zotzari egiten genion tiro. Behin baino gehiagotan atzeko txaparen hotsak egindako okerra jakinarazi arren, inoiz txiripaz asmatzen bagenuen, alde zurretik poltsikoan gordetako begirada eskaintzen genien begira genituen neskatxoei, azken finean, hori baitzen saririk onena, eta ez aukeran emandako giltzatakoa, non Elcheko edota Rayo Vallecanoko jokalaria

“Gure gustuko balinek kopa itxura zuten, baina horiek nagusiek erabiltzen zituzten txoriak akabatzeko”

baten erretratu itsusia zuen. Baina horretan ez zen bukatzen gurea; egindako balentria gozatu aldera, barruti barruan egoten zen litxarrera kioskora hurbildu, eta karamelu gorri blaitutako sagarra ez bazen, arto-aleak erosten genituen.

Gero, adinak koskortu egin gintuen, eta egunerokoak bestelako dimentsioa hartu zuen. Orduan jabetu ginen herriko jaietako barrakan baino bestelako barraka batean biziko ginela, eta elkarren arrimuan egongo ziren txinberek, lerrotutako politikari batzuen ideologia ikusita, opari gutxi emango zigutela, ez baldin bada San Mamesen Eurokopa Espainiako piperpotoaren giltzatakoa. Hala ere, sinetsi nahi dugu, oraindik, badagola jendea bestelako oparia nahi duena gustukoekin auto-txoketan talka egiteko, gustukoari irribarra eskaintzeko. Izan ere, igande honetan aukera oso ona izango dugu kopa itxurako balinak aukeratzeko, eta ezkertiar-independentista-euskaldun proiektuaren alde merezi duen herria bildu eta topa egiteko.

Umetan, barraketara joaten ginen, eta han amamak-edo, emaniko aste-saria erabiltzen genuen gure inozentzia xahutzeko. Batzuetan, auto txoketan aritzen ginen elkarren kontra; hori, bai, beti gerrikoaren irria aurpegian talka eginez gero, elkarri minik ez emateko. Besteetan, tiro egiten genuen tiro-pitxotan. Horretarako, elkarren arrimuan txintxo-txintxo egoten ziren guk besteko txinbera hartu aurretik, Hungariatik edo auskalo nondik etorritako gizon aspertuari erpurua lagunduta gustukoa emateko esaten genion: «Ez, hori ez, ezkerrekoa». Gero, gizonaren atzamarren mami lodiek



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Irtizia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► EUSKARAK MEREZI DUEN BOTOA

Euskararen egoerari buruz ari garelarik, letra larria baino ez dugu irakurtzen, ene ustez. Ez dakit, bada, protekzionismo gisa ez ote den izango hizkuntzaren situazioa ezkutatzeko, edota gure burua zurituzeko, baina letra txikiari beldurra diogu. Izan ere, ez euskarak (Mendiak aukeran ingelesa du nahiago), ez desfasatutako autodeterminazio eskubideak (Urkulluk argi eta garbi esan du), ez dute gurean gero eta handiagoa den erdal gizartea erakartzen, eta hori oso ondo dakite, okerrik egon ezean, hauteskundeak irabazteko erdal gizarte batean bizi izatera kondenatu nahi gaituzten alder-

diek. Autogobernuak, euskarak herri kontzientzia dakarte, eta hori komeni ez orain arte bezala jarraitzeko, ezer gutxi aldatzeko.

J.L.M.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEk edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, havek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraokak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduniko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaz datoren eskutitzik argitaratuko.



**Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean**

**943 743 704
688 634 044**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
Aita Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

BARREN



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA
MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



**elharrekin
PODEMOS.**

GOBERNATZEKO PREST

MIREN GORROTXATEGI
Lehendakari hautagaia
<http://mirengorrotxategi.eus>

EHBildu eta EAJ aurrez aurre, Udalaren kudeaketaren harira

Elgoibarko EH Bilduk dio Udal Gobernuaren kudeaketa “kas-karrak” 353.046,95 euroko kostua izango duela elgoibartar-rrontzat, “gainkostu honen erantzule den enpresa eraikitzailea erantzule ez egiteagatik”. Kiroldegiko igerilekuaren handitzea oso berri ona izanda, kudeaketa “txar” baten adibide bihurtu dela adierazi dute EH Bilduko arduradunek. 2019ko azaroan hasi zituzten eraikuntza-lanak, baina hasi orduko bertan behera laga zituzten, us-tegabeko emaitzak aurkitu zituztelako zundaketa-lanetan, eta eraiki-tze-sistema aldatu behar izan zuten. Proiektuan eginiko aldaketa horrek aurrekontuan ere eragina izan zuen, eta Udalak jakitera eman zuenez, gainkostua 367.758,26 eurokoa izango da (BEZA barne). Igerilekuak handitzeko lanekin lotuta, Elkartuk, Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzaileak, proiektuak identifikatutako hutsuneak eta eginiko aholkuak aintzat hartu ez izana aurpegiatu dio EH Bilduk Udal Gobernuari.



EAJ, Udal Gobernuaren alde

EH Bilduk esandakoaren kontrara, Elgoibarko EAJk Udal Gobernuaren kudeaketa “zuzena” izan dela esan du. EAJren iritzi-z, “lan zuzenari eginiko kritika” izan da EH Bildurena, eta horregatik “harriritu” daude, oposizioko kideek horrelako kontuak “ondo” ulertzen dituztelako. Udalak proiektua “sendotzeko” aldaketa bat egin zuen obran, eta hobekuntza hori Udalak eskatu duenez, euren ustez “argi dago” Udalak aurre egin beharko diola kostuari. Gogorarazi dute, bestalde, gai hau urtarrilean onartu zela Osoko Bilkuran, eta “elektoralistatzat” jo dute hauteskunde bezperatan gai hau berriz mahai gainean jartzea. Hauteskunderi lotuta, domekan bozkatzera joateko deia egin diete jeltzaleek herritarrei, ez dutelako nahi Covid19-a abstentzioaren aliatu bihurtzea.

Karakate gaineko Dolmenen ibilbidea ezagutzeko irteerak antolatu dituzte

Elgoibarko, Bergarako eta Soralezeko Udalek Dolmenen Ibilbidea ezagutzeko doako bisita gidatuak antolatu dituzte, Debegesarekin elkarlanean. Karakateko aparkalekutik abiatuko dira bisitariak, 10:00etan. Aurrez izena eman behar da, 657 794 677 telefonora deituta edo info@begibistan.com helbidera idatzita. Ibilaldian parte hartzeko gomendatutako gutxieneko adina 7 urtekoa da.



- ◆ Uztailak 12, igandea. 10:00. Euskara.
- ◆ Uztailak 24, ostirala. 10:00. Gaztelania.
- ◆ Uztailak 26, igandea. 10:00. Euskara.
- ◆ Abuztuak 9, igandea. 10:00. Gaztelania.
- ◆ Abuztuak 30, igandea. 10:00. Gaztelania.
- ◆ Irailak 6, igandea. 10:00. Euskara.
- ◆ Irailak 27, igandea. 10:00. Gaztelania.
- ◆ Urriak 25, igandea. 10:00. Euskara.


Irailera atzeratu dituzte gurasoentzako formazio-saioak

Elgoibarko Udalaren eta herriko ikastetxeetako guraso taldeen arteko elkarlanaren bitartez osatuta dagoen Guraso Formakuntza Taldeak atzeratu egin behar izan ditu ikasturte honetarako antolatuta zituen adikzioen prebentzio programako saio guztiak, koronabirusagatik. Sei saio izango dira guztira, eta asmoa da irailaren 17tik azaroaren 19ra bitartean egitea: *Familiaren garapena*, *Teknologiaren erabilera egokiak*, *Nerabeen gatazketan bidelagun*, *Seme-alaben adimen emozionala*, *Mugak jarri ezinik eta Komunikazio ez bortitza* dira ikastaroen izenburuak. Aurrez aurreko saioak izatea aurreikusi dute, baina pandemiaren eboluzioak baldintzatuko du formatua. Dagoeneko zabalik dago izena emateko epea: <https://labur.eus/yqJKO> helbidean eman daiteke izena.

Hautesmahaiak lekuz aldatuko dituzte domekako bozetarako

Eusko Legebiltzarrerako hauteskondeak egingo dira domekan, eta koronabirusaren eraginez, hainbat hautesmahai lekuz aldatuko dituzte bai Elgoibarren eta baita Mendaron ere. Mendarori dagokionez, bi hautesmahai egongo dira orain arte bezala, baina udaletxean beharrean, ikastolan. Elgoibarren, bestalde, 17 mahai jarriko dituzte herriko auzo eta kaleetan banatuta, baina horietako batzuk ez dituzte ohiko lekuetan kokatuko. Hauek dira aldaketa nagusiak: 3B eta 3C mahaiak, lehen Kultur Etxeko sotoan egoten zirenak, Aita Agirrera eramango dituzte, eta gauza bera egingo dute Jubilatuen Biltokiko 4U mahaiarekin. Pedro Mugurutzako mahaien kasuan, 5A eta 5B mahaiak ohiko tokian egongo dira, baina 6U mahaia, gelaz aldatuko dute. Kasu honetan, gainera, eskolatik irteteko, atzealdeko ate bat erabiliko beharko dute herritarrek. Kultur Etxeko lau mahaiei dagokienez, ohiko kokapena mantenduko dute, baina sarrera eta irteerarako, markatutako ibilbidea jarraitu beharko da.

Domekako hauteskondeak higiene eta osasun bermekin egingo dira: derrigorrezkoa izango da hautesleketan jarriko dituzten arauak errespetatzea, maskara jantzita eramatea, distantziak mantentzea eta eskuak garbitzea hautesmahaietan egongo den gel hidroalkoholikoarekin. Laguntzaileak izango dira hautesleku guztietan, babes neurriak errespetatzen direla



bermatzeko, sarrera zein irteeretan laguntza eskaintzeko herritarrei, eta hautesleketan eta horien inguruan jendea elkartzea saihesteko. Ilarak sortuz gero, lehenasuna emango zaie hautesle kalteberenei, 65 urtetik gorako pertsoneri edo haurdun dauden emakumeei, bozketa-mahaietan ahalik eta denbora gutxien pasatu dezaten.

Botoa etxetik prest eramatea gomendatu dute hautesleketako gortinak ukitzea sahiesteko. Horrez gain, bakoitzak bere identifikazio txartela erakutsi beharko dio mahaiko lehendakariari, baina berak ezingo du ukitu.

Hauteskunde kanpainako ekitaldi politikoak egin dituzte Elkarrekin-Podemosek eta EH Bilduk Elgoibarren



Martitzenean iritsi zen Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde kanpaina Elgoibarrera. Goizean Elkarrekin-Podemos alderdiko ordezkariak egin zuten agerraldia Kalebarren plazan. Jantxo Lopez de Uralde Unidas-Podemoseko diputatuak, eta Eusko Legebiltzarrerako hautagaiak diren Arantxa Gonzalezek eta Isabel Gonzalezek hartu zuten parte. Isabel Gonzalezek Lurzorua Kontserbatzearen aldeko Nazioarteko Eguna zela esanez hasi zuen hitzaldia. Isabel Gonzalezek adierazi zuen, bestalde, elikadura ur eta ingurumen eskubidea merezi duten bezala baloratu behar direla eta arlo horietan "ausartak eta handinahiak" izateko garaia dela zehaztu zuen. Jantxo Lopez Uraldek, berriz, Elkarrekin Podemos Espainiako Gobernuan egoteak ekarri dituen onurak goraiatu zituen. Arratsaldean, EH Bilduren ekitaldia izan zen Giza Eskubideen parkean. Mertxe Aizpurua Espainiako Kongresuko diputatua eta Ander Rodriguez Legebiltzarrerako Gipuzkoako hautagaiak gonbidatu zituzten, eta Nagore Cid elgoibartarrak gidatu zuen solasaldia. Rodriguezek esan zuenez, "ezustekoa" emateko moduan dago EH Bildu igandeko hauteskundeetan, eta esan zuen Gipuzkoako lehen indarra izateko aukerak dituela. Aizpurua, bestalde, Madrilgo aktualitate politikoaz eta horrek Euskal Herrian daukan eraginaz mintzatu zen.

Maria Jimenezen lana aukeratu dute sanbartolomeetako egitarauko azalerako



Hamasei lan aurkeztu dituzte sanbartolomeetako egitarauaren azala aukeratzeko kartel lehiaketara, eta Maria Jimenezen lana saritu du epaimahaia. Jimenezek 700 euroko saria jaso du. Haurren lehiaketari dagokionez, hamalau lan aurkeztu dituzte eta ondorengo lanak saritu dituzte: Leire Bilbao, Ekain Soto, Iñigo Merino, Sare Meabebasterretea, Ane Cerrejon eta Oihane Meabebasterretea. Sari banaketa abuztuaren 23an egingo dute, 19:00etan, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Maskarekin joatea beharrezkoa da, eta adin txikikoak heldu batek lagunduta joan beharko dira.

Euskal Herriko espetxe batera gerturatuko dute Sebas Etxaniz



Sebas Etxaniz preso elgoibartarrari hirugarren gradua eman diote, eta Donostiako espetxera lekualdatuko dute, beste bi presorekin batera. Euskal preso kolektiboko kiderik zaharrena da Etxaniz, 75 urterekin. 2002an espetxeratu zuten, eta azken urteak Villabonako (Asturias) kartzelan eman ditu. Espainiako Espetxe Erakundeak ohar bidez jakinarazi duenez, hirugarren gradua eman dieten hiru euskal presoek indarkeria gaitzetsi dute, eta Etxanizen kasuan egindako mina aitortu eta deitoratzeaz gainera, espetxe legedia onartu eta bere ardura zibilari aurre egitea onartu du. Etxanizek 2019ko apirilean bete zituen zigorraren hiru laurdenak.

Panel akustikoak jartzeko obra lizitazio fasean sartu da

Elgoibarren AP-8 autobidean pantaila akustikoak jartzeko proiektua uztailearen 24an aterako du Bidegik lizitazioa. Obra esleitzeko hiruzpalau hilabete beharko dituzte, eta ondoren, zortzi hilabeteko epea izango dute obrak amaitzeko. Lizitazioaren oinarriko aurrekontua 2,1 milioi euro + BEZ izango da. AP8ko 66,400 eta 67,300 kilometro puntuen artean jarriko dituzte panelak, Ikastola eta Institutoaren artean. Bilborako noranzkoan 866 metroko luzera izango dute, eta Donostiarakoan, berriz, 405 metrokoa. Gune horretan Sallobenteko zubibidea dago, beraz, panelak jartzeaz gain, euste sistemak eguneratuko dituzte. Aurrekontuari dagokionez, 972.200 euro erabiliko dituzte pantailak jartzeko, 828.700 euro zubiaren egitura indartzeko eta 278.100 euro zubibideari eusteko sistema berritzeko. Azkenik, 74.000 euro erabiliko dituzte obrak sortutako hondakinak kudeatzeko.

Obra honek Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldeko errepideetako zaratari aurre egiteko ekintza-planean du jatorria.

'Guztion Artean' elkartasun sarea desegin dute

"Normaltasun berrira" iritsita, etxetik irten ezinda eta bakardade egoeran zeuden pertsoneri arreta ematea helburu zuen *Guztion Artean* sarea bertan behera utzi dute. Nagusilan eta Gurutze Gorriaren gidaritzapean 38 boluntario aritu dira lanean *Guztion Artean* elkartasun sare antolatuan. Sare honen bitartez Elgoibarko hamasei familiak jaso dute laguntza. Zerbitzu ezberdinak eskaini zaizkie: bakardade egoeran zeuden adinekoei telefono bidezko laguntasuna eman, erosketak egin eta etxera eramateko zerbitzua, zaborra jaitsi, anbulategiko paperak etxera eraman, medikazioa botikan zein ospitalean jaso eta etxera eraman, Mendaroko ospitalean ingesatutakoei beharrezko zenbait gauza eraman... Ekimenaren sustatzaileek esan dute berriro aktibatuko dutela sarea, egoerak horrela eskatuko balu. Udalak eskerrak eman dizkie sarean parte hartu duten erakunde eta norbanakoei, euren lanari eta jarrerari esker erantzun ahal izan dietelako eskaerari.

▶ Cebriday: Lagun giroan eta bere kantuekin omendu dute Carlos Cebrian

luntze dotorea izan zuten barikuan Mendaron. Musikak dozenaka lagun elkartu zituen Azpilgoetako SantaKurutz parkean Carlos Cebrian musikaria omentzeko eta han bizitakoa "berezia" izan zela aitortu zuten hurbildu zirenetako askok. Hunkitzeko moduko saioa prestatu zuten Sinuöse kultur elkarteko lagunek eta Gararock jaialdiaren sustatzaileek. Cebriaren ibilbideko hainbat kantu jo zituzten, eta topaketako une batean Aintzane Gonzalez haren emazteak pianoan egindako kantua ere jarri zuten entzungai. Garai bateko Ormolako usaina ere hartu zuten Azpilgoetako SantaKurutz parkeak. Carlos Cebrian musikariaren lagun eta taldekide izandakoek parte hartu zuten jaialdian: Ina Irondok, Joe Jimenezek, Anita Ladyfingersek, Patxi Zabaletak, Josu Irondok, Iban Urizarrek, Andoni Mujikak, Rafa Furnierrek eta Jon Gurruxagak. Cebriaren aurreneko talde izandako Lili Moon taldearen kantu batekin hasi zuten jaialdia, baina Andrakan, Munlet, eta The Brian Valeta Movement taldeen eta Maraca Diablo proiektuko kantuak ere ez ziren falta izan, ezta Cebriaren gustuko kantutegi bertsio bat edo beste ere. Bideoa: barren.eus.



Arg.: Juxe Areta Goñi



Arg.: Juxe Areta Goñi



Arg.: Juxe Areta Goñi



Arg.: Juxe Areta Goñi





Anbulatorioetan ohiko zerbitzura itzultzeko eskatu dute herritarrek

Koronabirusaren pandemiagatik anbulatorioetako zerbitzuak egokitu egin behar izan dituztela zabaldu dute Debarreneko Era-kunde Sanitario Integratutik (ESI), eta horregatik itxi dutela Elgoibarko Etengabeko Arreta Gunea (Urgentziak, 17:00etatik atzerako zerbitzua) eta horregatik ez dela Mendaroko anbulatorioan medikurik izango astean bi egunez. Murrizketarik ez dela izan nabarmendu dute, baina berriak atezuan jarri ditu herritarrek eta mobilizazioak hasi dituzte.

- AINARA ARGOITIA -

Koronabirusaren pandemiagatik aldaketak egin zituzten mar- toxi erdi aldera Elgoibarko eta Mendaroko anbulatorioetan. Alarma egoera ezarri eta hiru hilabetera, baina, ekainaren 21ean, "normaltasun berria" hasi genuen Hego Euskal Herrian, konfinamendua arintzeko hirugarren eta azken fasea amaitzeare- kin batera. Anbulatorioetan, hala ere, zerbitzuak ez dira lehengo- ratu, ez oso-osoa behinik behin, eta herritarrek beldur dira koronabirusaren aitzakipean Osasun Sailak murrizketak aplika- tzeko. Duela astebete, murrizketarik ez dela izan eta ez dela izango nabarmendu zuten Debarrenako ESItik, baina ez zuten hala ulertu herritarrek, ez eta sindikatuek ere. Zerbitzua eskatu delakoan, ehunka erreklamazio-orri bete dituzte Mendaron herri- tarrek, eta Elgoibarren eta Soraluzen ere hasi dituzte mobiliza- zioak. Astelehenean, esaterako, manifestazioa egin zuten Elgoibarren, Duintasuna-GaurGeroa taldeko pentsiodunek deituta. Egoera horretan, Osasun Sailera eta Debarrenako ESIta jo zuen BARREnek argibide gehiagoren bila, eta astelehenean iritsi zen erantzuna Debarrenako ESItan prentsa-bulegotik: "Momen- tuz, ez da gai honen gainean ezer gehiago argituko".

Alarma egoera ezarri eta biharamunean, martxoaren 15ean, aurrez aurreko zerbitzua emateari laga zioten Gipuzkoako ESI guztietan, tartean gurean. Hitzorduren bat zuten herritarrei etxean geratzeko eskatu zieten, osasun zentrotik haiekin harremanetan jarri arte. Lehen arreta telefonoz egiten hasi ziren osasun-arloko profesionalak, eta "soilik beharrezkoa zenean", ematen zuten aurrez aurreko hitzordua [Hala jarraitzen dute]. Programatutako proba osagarri guztiak bertan behera laga zituzten (elektrokardiogramak, espirometriak...), baina programatutako sendaketei eutsi egin zieten. Era berean, Elgoibarko anbulatorioiko Etengabeko



Atentzioko Gunea (urgentziak, 17:00etatik atzerakoa) ere itxi egin zuten, bai eta Ermukoa eta Eibarko Toribio Etxeberria kaleko anbulatorioikoa ere. Martxoaren 30ean, lehen mailako arreta lau zentrotan kontzentratu zuten Debarrenako ESIt: Eibar Ospitalean, eta Eibarko, Debako eta Elgoibarko anbulatorioetan. Hala, Elgoi- barko anbulatorioan herrikoez gain Mendaroko eta Soraluzeko biztanleak artatzeari ekin zioten. Tarte horretan, Mendaroko anbulatorioa test serologikoak egiteko gune izendatu zuten. Konfi- namenduaren gogorrean izan zen hori, eta Elgoibarrera joan-etorrian ibili zirenetako asko adinekoak izan ziren, Osasun Sailak berak herritar kalteberentzat jo zituenak. Geroago etorri da Mendaroko anbulatorioiko zerbitzu eskastearen berria, ekainean, osasun zentro horretan "ohiko" zerbitzua ematera itzuliak zirenean. Kontsulta-ordu eske anbulatoriora deika hasi zirenean jakin zuten herritarrek uztailean erizaintza-zerbitzua bakarrik izango zutela eta abuztuan anbulatorioa itxi egingo zutela, eta beraz, udako bi hi- labeteotan mediku-zerbitzua Elgoibarren jasoko zutela. Sumindu zituen albisteak mendarorarrak eta ehunka erreklamazio-orri bete zituzten. Iñaki Arregi alkatea Osasun sailburuordearekin batu zen, eta azkenean, atzera egin zuten Osasun Sailak, baina hein ba- tean bakarrik. Joan zen astean iragarri zuten Debarrenako ESItik uztailean eta abuztuan mediku-zerbitzua hiru egunera mugatuko dutela Mendaroko anbulatorioan: hau da, uztailean programatu- tako erizaintza kontsultak emango dira eta medikua ere egongo da astean hiru egunez, eta abuztuan, astean bi egunez, itxi egingo dute anbulatorioa, sekula ez bezala. Gaur, martitzena, zalantzan jarri du, hala ere, Begoña Saenz de Azkunaga ELA sin- dikatuak ESI Debarrenerako daukan ordezkariak: "Hori agindu zuten, baina ez dago ezer lotuta. Gaur [hilak 8] inork ez zuten horren berri anbulatorioan. Medikua asko bajan daude eta beste asko, oporretan".

Edonola ere, bi arrazoi eman zituzten agintariek Mendaroko anbulatorioko zerbitzua hiru egunera murrizteko: udako hilabeteetan Lehen Mailako arreta sektoretan egin behar izan dutela eta aurrez oporak epe-tarte laburragoan hartu beharko dituzten osasungin- tzako profesionalak oporak hartzeko eskubidea bermatu behar dietela [Ahal duten neurrian oporak urriaren 12a aurretik hartzeko eskatu die Debarrenako ESIt langileei]. "Ez da derrigorra,



baina badakigu gainbegiraleren batzuek derrigortzen hasi direla euren menpekoei ordurako oporrak hartzera”, esan du horren harira Begoña Saenz de Azkunagak. Haren esanetan, Osakidetzak zirkular bat atera zuen esanez opor-egunak abenduaren 31 aurretik hartu behar zituztela, baina orain, Gipuzkoako ESletatik zabaldu dute urriaren 12rako hartzea komeni dela, udazkenean beste koronabirus agerraldi bat etor daitekeelako. “Langile asko orain hartzen ari dira opor-egunak, baina borondatez barik beldur direlako gero galduko ote dituzten, gauza jakina delako abenduaren 15etik aurrera ez digutela jai-egun bat hartzen lagako, Gabon bueltarako ez delako ordezkapenik egongo”. Lasaitasun mezua zabaldu die, baina, langileei, esanez Langileen Estatutuan jasota dagoela osasungintza publikoan 28 lan-egun opor egiteko eskubidea dutela, eta langilearekin zerikusirik ez daukan arrazoiengatik hartu ezin badituzte, Osakidetzak formula bat bilatu beharko duela horri irtenbidea emateko. “Aste Santuan ere lan egitera behartu gaituzte eta orain, gainera, 12-2020 agin-dua atera du Osakidetzak eta dio ez daukagula nominan lan egindako jai-egunak kobratzeko eskubiderik, esparru-akordioa arautzeko agiriak kontrakoa dioenean. Era berean, pilotutako orduak ere eurei komeni zaienean kendu behar ditugu. Ahoa bete zaie guretzako txaloak eskatzen, eta ostikoa eman digute”, gehitu du.

Batzuen arrazoiak, besteentzat aitzakia

Osasun Sailak zerbitzuen egokitapena ikusten duen lekuan murrizketak ikusten dituzte herritarrek eta sindikatuek. Duintasunen pentsiodunen eskubideen alde dihardute lanean eta kexa ugari jaso dituztela ohartarazi dute. “Telefono bidezko kontsulteen ez dira konpontzen gure adinekoak. Argazkiak bidaltzeko eskatzen diete medikuek, eta askok ez dute modurik, eta horrek eta beiko medikuari aurrez aurre hitz egin ezinak kezka eta ezinegona sortzen die. Bestalde, ikusten dugu Elgoibarko anbulatorioko zerbitzua eskasten ari dela. Orain arte 24 orduko zerbitzua ematen zuten anbulatoriotan, eta orain, 17:00etan itxi egiten dute”, adierazi du Joseja Arregi Duintasuneko bozeramaileetako batek. Murrizketak begi-bistakoak direla dio Begoña Saenz de Azkunagak, eta aukera baliatu du argitzeko profesionalak eurek ere ez dau-

delat gustura ematen ari diren zerbitzuarekin. “Ez dezatela herritarrek pentsatu medikuek ez dituztenik aurrez aurre ikusi nahi. Mediku guztiek diote pazienteak aurrez aurre ikusteko beharra dutela behar bezala artatu ahal izateko. Protokolo hori zehaztu du Osakidetzak, baina uste dugu badaudela bideak aurrez aurrekoa bermatzeko”. Saenz de Azkunagak dio koronabirusagatik %200a eman duten profesionalak “ostikoa” eman diela Osakidetzak. “Herriak direla esan eta bazterrean laga behar al dituzte?”, kargu hartu dio Osasun Sailari. LABeko Anafran Astigarraga ere kezkatuta dago aurrez aurreko kontsulteen inguruan Osakidetzak egin duen balorazioarekin: “Oso balorazio positiboa egiten dute eta kezkatzen nau horrek, ekar dezakeelako protokolo horri behar baino luzaragoan eustea, gertatzen ari den moduan. Herritarrek behar dute medikuak ikustea, aurrez aurre berba egitea harekin. Koronabirusagatik hartu dute neurri hori, eta balekotzat eman nezakeen pandemiaren gogorrean, baina orain, ez”. Mobilizatzera deitu ditu herritarrek, Osakidetza “edozeratarako” gai ikusten duelako. “Ermuan anbulatorioa ere itxi zuten hilabete inguruz, eta 17.000 biztanle inguru dira han”.

“Etengabeko Arretako Guneak (anbulatorioetako urgentziak) kentzea ere lanpostuak kentzea da”, Saenz de Azkunagaren iritzirako. Horren harira esan du Etengabeko Atentzioko Guneetan lan egiten zuten erizain, mediku, eta zeladoreak callcenter batean birkokatu dituztela deiei erantzuteko eta inork ez diela jakinarazi noiz itzuliko diren ohiko lanlekuetara. “Garai batean 17:00etatik biharamuneko 8:00ak arteko zerbitzua ematen zuten Etengabeko Arreta Guneetan astebarruan, eta gero, gauerdira arte mugatu zuten. Orduan ere gutxitu zituzten lanpostuak”. Elgoibarko Etengabeko Gunea itxita noiz arte egongo den galderarentzako ez dute erantzun argirik jaso sindikatuek: “Galdetu dugu guk ere, jakina, eta gutxienez irailera arte izango dela esan digute, baina batek daki. Legebiltzarrerako hauteskundeak ere domekan dira... Gero ikusiko da. Udan beti izaten dira arazoak ordezkapenak egiteko, lehen mailako medikuak falta direlako, baina irailan? Irailan argi ikusiko da murrizketak egon, egon direla”, dio Astigarragak. Ulergarria irizten dio, hala ere, Eibarko Toribio Etxeberriako EAG ixteari, bai eta Ermukoa ixteari ere, Eibarren ospitale berria zabaldu zutenean 24 orduko zerbitzua ezarri zutelako han, eta ez delako “bideragarria” hori izanda beste bi puntuei eustea, baina Elgoibarko itxi izana ez du begi onez ikusten. “Elgoibarko kasua ezberdina da. Elgoibar, Soraluze eta Mendarori ematen diote zerbitzua hor”. Horregatik bat egin zuten astelehenerako Elgoibarren Duintasuna-Gaur Geroak deitutako manifestazioarekin. “Mugitu beharra dute herritarrek”, ohartarazi dute.

Mendaroko anbulatorioko zerbitzua

Osakidetza familia medikuei egiten ari zaien kontratu “eskandalagarriez” ohartarazi du bestalde ELAko ordezkariak, eta Mendaroko kasua jarri du adibidetzat. Lehen mailako arretako oinarriko unitateetarako kontratatzen dituzte medikuak, unitate horretan dauden hutsuneak betetzeko. “Hala,



Elgoibarko Lehen mailako-arretan amatasun baimen bat kurbitzeko hartu zuten medikua Mendarora bidali zuten, han plaza egonkorra daukan medikuak Elgoibarrera leku aldatzea eskatu zuelako, besteak beste Mendaron gehiegizko kupoa daukalako (bere zaintzapean duen paziente kopurua). Elgoibarrerako kontratatu zutenak, baina, aldaketa onartu zuenez, orain ez diote ordaintzen dagokiona". Hau da, Mendaron behar baino gehiago dituen paziente bakoitzeko ordaindu beharko lioketena barik, Elgoibarren behar baino gehiago

duen paziente kopuruaren arabera ari zaizkio ordaintzen ["gehiegizkoa" da Elgoibarko kupoa ere, baina ez Mendaron bestekoa]. Azkena, gainera, esan zioten Mendaro eta Elgoibar ere egin beharko zituela, baina aldaketak izan dira. "Orain, astean hiru egunez Mendaroko anbulatoriora joango den medikua ez da beti bera izango eta Mendaron medikurik ez dagoen beste bi egunetan beste pertsona bat jarriko dute, mendaroarrei kontsulta telefono bidez pasatzeko", azaldu du Saenz de Azkunagak.

Kale inkesta: Zer irizten diozu anbulatorioko zerbitzuari?



BEGOÑA DE LA FUENTE

"Lotsagarria iruditzen zait, hobera beharrean okerrera goazelako. Lehen, hemen jasotzen genuen zerbitzua, eta orain, Mendaroraino joan behar gara arratsaldean, neuk ere izan dudalako joan beharra. Farmaziekin gertatzen den gauza bera da. Horrenbeste farmazia izanda herrian ez dut ulertzen zertan joan behar garen batzuetan kanpora guardiakoaren bila. Kontsulta telefono bidez pasatze hori ere ez zait iruditzen. Uler nezakeen lehen, pandemiaren gogorrean, eta onar dezaket orain, kasu batzuetarako, botika baten errezeta luzatzea denerako-edo; bestela, gehiegizkoa iruditzen zait. Beste guztiok ere lanera hasita gaudenean Osakidetza horri eustea ez zait bidezkoa iruditzen".

GURUTZE MUGERTZA

"Ez zait iruditzen ondo 17:00etatik atzerako zerbitzua kendu izana. Gutxienez 00:00ak arte zerbitzua eman beharko lukete Elgoibarren. Telefono bidezko kontsultekin ere ez naiz ondo moldatzen. Gaizki zaudela deitzen duzu anbulatoriora eta txanda hartzen duenari ezin diozu azaldu behar bezala zer daukazun. Gero, gainera, medikuak, berak ahal duenean deitzen dizu. Iruditzen zait kontsultak modu normalago batean emateko modua badagoela".



JOXERRA EZENARRO

"Ez zait ondo iruditzen 11.000 biztanle dituen herri batean anbulatorioa ixtea 17:00etatik atzera. Gainera, orain, kontsulta ere telefono bidez pasatzen dutenez, nik ez dakit nora joan behar dugun ere, beharra izanez gero. Nagusilanean nabil ni, eta garbi daukat adinarekin medikuaren behar handiagoa izaten dela normalean eta edadetuentsat medikuari aurrez aurre hitz egitea oso garrantzitsua dela. Eta garbi daukat edadetu askori zer nolako nahasmendua sortzen dien Elgoibarren 17:00etatik atzera medikurik ez egoteak".



BELEN BELATEGI

"Oso gaizki iruditzen zait osasun kontuetan murrizketak egitea eta Elgoibarren geneukan zerbitzua kentzea. Hemen jende asko bizi gara eta gutxienez orain artekoari eutsi egin beharko genioke. Oporrak hartu behar dituztela medikuek, gero etor daitekeen horrengatik? Bale, hori bai, baina jarri dezatela dirua deskantzua hartu behar dutenen orde bestekoz ekartzeko. Kentzea dute gorago daudenen soldatetatik dirua. Hor galtzen da dirua".





ANDOITZ AGIRREGOMEZKORTA

“Tokatu zait dokumenturen baten bila etortzea ambulatiora eta itxita egotea, eta hurrengo egunean laneko ordutegia moldatu behar izatea dokumentu hori jasotzera etortzeko. Iruditzen zait bestalde zenbait jende erraz moldatuko dela arratsaldeko 17:00etatik aurrera medikua behar izanez gero, Mendarora joateko, baina beste jende batentzat, batez ere edadetuentzat-eta, nahasmendu handia suposa dezakeela horrek. Telefono bidezko kontsultak ere baleko izango dira gauza batzuetarako, baina ni neu medikuak aurrez aurre ikustearen aldekoa naiz beti. Iruditzen zait, gainera, denok ari garela moldatzen egoera edo bizimodu berrira, eta horrenbestez, uste dut ondo legokeela Osakidetzan ere ohikora bueltatzea”.

JUAN LUIS SARRIUGARTE

“Koronabirusaren kontu honek dena moldatu beharra ekarri du eta protokolo hori betetzeko Elgoibarko urgentzia zerbitzua kendu behar baldin bada, onartu egin beharko dugu, aldekoa izan ez arren. Nik alaba daukat medikua eta zer pentsatua ematen dit. Iruditzen zait erabaki honek hartu dituenak ondo beharrez hartuko zituela, herritarrei kalte egiteko baino gehiago. 94 urteko ama ere badaukat eta neuri ere ez dit graziaz egingo hau itxita dagoelako Mendarora edo Eibarrera eraman behar izateak, baina sinistu nahi dut pentsamendu onarekin hartuko zizutela erabaki hauek”.



PILAR ORTEGA

“Bi gauza dauzkat esateko: batetik, lotsagarria iruditzen zaidala Elgoibarko ambulatiora 17:00etarako ixtea, eta bestetik, garbi daukat birusa oraindik gure artean dabilela eta ikasi behar dugula honekin bizitzen, baina iruditzen zaidala badagoela bidea aurrez aurreko kontsulta gehiago emateko. Garbi dago osasungintzako profesionalak arriskua hartzen dutela lanean koronabirusaz kutsatzeko, baina kontsultak telefono bidez emate honek beste batzuk ere jarraitazke arriskuan, larria zer den ere hobeto ikusiko delako aurrez aurreko behaketa baten telefono bidezko berbaldi baten baino”.

Anbulatorioetako ordutegi eta zerbitzuak

Martxoaren 15az geroztik, lehen arreta telefonoz egiten ari dira gure osasun-zentroetan, eta soilik medikuak “beharrezkoa ikusten duenean”, ematen duten aurrez aurreko hitzordua. Nork bere ambulatiora deitu behar du horretarako. Txandak, hala ere, luzerako ematen ari direla ohartarazi dute herritarrek. Gaur, martitzena, datorren asterako ari ziren ematen telefono bidezko kontsultak, ELAtik ohartarazi dutenez. Larrialdiren bat izanez gero, Mendaroko Ospitalera jo behar da zuzenean, eta Etengabeko Arreta Gunea (pandemia hasi aurretik 17:00etatik atzera Elgoibarko ambulatiora ematen zuten zerbitzua) Eibarko Torrekuan dago. Koronabirusaren pandemia hasi zenean itxi zituzten Elgoibarko Etengabeko Arreta Gunea, Ermukoa eta Eibarko Toribio Etxeberria kalekoa.

- ◆ **Elgoibarko ambulatiora:** 943 032 610 (8:00etatik 17:00etara zabalik).
- ◆ **Mendaroko ambulatiora:** 943 756 143 (8:00etan zabalitzen dute, eta 15:00etan itxi, baina ELAtik ohartarazi dute doan medikuaren arabera gerta daitekeela egun batzuetan 13:00etan ixtea). Era berean, uztailean eta abuztuan emango duten zerbitzua ere ez dagoela argi salatu dute ELAtik. Ambulatorioan astean hiru egunez mediku-zerbitzua emango zutela agindu zuten, baina gaur-gaurkoz ez dagoela lotuta ohartarazi dute, eta medikuek eurek ere ez dutela jakinarazpen argirik jaso.

Debarrenako ESik zerbitzu integratuak ematen dizkie Debarreneneko eskualdeko 76.000tik gora biztanleri. Zerbitzua emateko, baina, lehen mailako arretako bost unitate eta Mendaroko Ospitalea ditu Debarrenenako ESik. Elgoibarko unitatean, Elgoibar, Soralue eta Mendarori ematen diote zerbitzua.



Konoeak adierazten dute familia bakoitza non jarri behar den. 220 partzela daude, eta bakoitzean lau lagun sartu daitezke.

Mintxetan ere egokitu dira

Hilabeteetako ezjakintasun egoeraren ostean, Mintxetako aire libreko igerilekuak zabaltzea erabaki zuten arduradunek, batzuen harridurarako eta besteen pozerako, eta ohi bezala, ekainaren 15erako iragarri zuten igerilekuen irekiera. Aurrez, osasunerako berme eta segurtasun neurriak hartu zituzten. Ia hilabete pasatu da ordutik, eta igerilekuetako langileekin batu gara, egoera berezi honetan zer moduz diharduten jakiteko. Eva Astigarraga sorosleak eta Koro Sabando harrerako langileak eman dizkigute azalpenak.

- AINHOA ANDONEGI -

Eguraldi iragarpenari adi-adi pasatu zituzten ekaineko lehenengo asteak Mintxetako langileek, ekainaren 15ean igerilekuak zabaldu zain. Ezustean harrapatu zituen igerilekuak zabaltzeko erabakiak, baina protokoloa aztertu eta prestatu ziren irekierarako. Neurriak zehaztu zituzten erabiltzaileen segurtasuna eta osasuna zaintzeko, baina ez zekiten neurri horiek guztiak nola beteko zituzten eta kezkatuta zeuden, baita ere, ez zekitelako herritarrek nola erantzungo zuten. Ekainaren 15eko astean eguraldi txarra egin zuen, eta martxan hasteko primeran etorri zitzaizela aitortu dute Eva Astigarraga igerilekuko sorosleak eta Koro Sabando harrerako langileak.

Berdegunean jende gutxiago har dezakete orain, gehienez mila lagun. Horregatik, herritarrei eman diete lehentasuna, eta eguneko sarrerak Elgoibarkoek soilik erosi ahal dituzte aurten, kanpoko herrietakoek bisitak ahalik eta gehien murrizte aldera. Urte osoko abonatuak ohiko moduan sartu ahal izango dira, baina urtero bezala, igerileku denboraldirako abonua ateratzeko aukera ere badago. Abonu hori edonork eskuratu dezake, baita Elgoibarkoak ez direnek ere. Berdegunean konoen bidez zehaztu dituzte partzelak: guztira 220, eta bakoitzean lau lagun egon daitezke gehienez. Familia edo lagun talde bakoitzak bere partzela aukeratu dezake, baina egunen baten

edukiera gaindituko balitz, bertako langileek esandako lekuan jarri beharko lukete erabiltzaileek. Alde horretatik momentuz ez dute arazorik izan: "Mila lagunera iristea zaila da, eta berdegunean normalean ez da lekurik faltako. Eguraldi oso ona egin zuen egun batean iritsi ginen ia gehiengora, baina ez da ohikoena. Batzuetan gertatu zaigu bost laguneko kuadrila batek elkarrekin jarri nahi izatea, baina horrelakoetan bi partzela betetzeko eskatu izan diegu, gehienez lau lagun egon daitezke-elako partzela bakoitzean", azaldu du Koro Sabandok.

Igerileku barruko edukierak eman dizkie arazo gehiago: Ireki zutenean alarma egoera zegoen oraindik indarrean, eta edukiera txikiagoarekin hasi ziren. Igerileku handian 75 lagun sartu zitezkeen gehienez, eta txikian berriz, hamabost. Eguraldi ona egin zuen domeka batean fitxa sistema jarri behar izan zuten martxan lehenengo aldiz, edukiera hori kontrolatzeko, eta arduradunek eurek ere ez zuten jakin nola gauzatu protokoloan jasota zutena. Eva bera zegoen sorosle lanetan egun horretan, eta estreinak aldian hura oso ondo gogoratzen du: "Kaosa sortu zen. Ikusi genuen uretan 75 lagun baino gehiago zeudela eta fitxa sistema martxan jarri behar genuela, baina ez genekien nola. Igerilekua hustu genuen, eta erabiltzaileei esan genien ilara bat egiteko, fitxak bantzen hasiko ginelako. Une horretan denak korrika hasi ziren,

ilaran aurreneko lekuetan jartzeko eta inork ez zituen distantziak mantendu. Jende guztia zarataka hasi zen, eta denok jarri ginen urduri". Fitxa eskuratu zutenak sartu ziren lehenak uretan, eta bi-tartean fitxa horiek desinfektatu egin zituzten, ondorengoei banatzeke. Gehienez ordu erdiko bainua izan behar zela zehaztu zuten, baina ikusi zuten horrek asko moteltzen zuela sistema. Hurrengo egunean arazo beraren aurrean hamabost minutuko bainua jartzea pentsatu zuten, eta askoz hobeto joan zen dena. Orain, normaltasun berrian, igerilekuaren edukiera handitu egin dute eta askoz hobeto moldatzen dira. "Egun hartan dena gaizki irten zitzaigun, zoratzekoa izan zen eta sorosleak gehiago egon ginen edukiera zaintzen, gure benetako lana egiten baino". Orduetik aurrera, harrerako langileei eman diete fitxak banatzeko ardua, sorosleek euren lana egin ahal izan dezaten. Aurtengo denboraldian langile kopurua bikoiztu egin dute Mintxetan, eta arratsaldeko ordu batzuetan, gainera, bi sorosle beharrean hiru egoten dira: Harrera lanetarako lau langile daude, eta sorosle lanetarako, hiru. Ezohiko egoera honetan lan gehiago dute, baina euren iritzi, aurreko urteetan baino jende gutxiago dabil aruten igerilekuetan. "Uste genuena baino jende gehiago etortzen da, hala ere".

Ur jolasak itxita daude, eta haur jolasen beheko parkea ere bai. Garbitasuna ere areagotu egin dute, eta igerilekuak sarriago garbitzen dituzte. Aldagelak, bestalde, erabili daitezke, baina dutxak itxita daude. Komunera joaterakoan ezinbestekoa da eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbitzea eta maskara jantztea. Kirol azpiegituran zehar ibiltzeko gezien bidez zehaztu dituzte norabideak, eta igerilekura sartzeko hatz markaren aukera bertan behera laga dute aruten. Txartela beharrezkoa da, beraz, igerilekura sartzeko. Irteerarako ere zehaztuta dituzte neurriak, jende pilaketak saihesteko. 20:30ean ixten dute igerilekua, eta une horretan 500 lagun baino gehiago egongo balira igerilekuan, ezingo liriateke denak ate beretik irten. "Oraindik ez zaigu horrelakorik gertatu, baina kasu hori emango balitz, igerilekuen atzeko aldean dagoen beste ate bat irekiko genuke".

Jarrera ona

Erabiltzaileek, oro har, jarrera ona erakutsi dute. "Beti dago norbait erantzun txarren bat ematen duena, baina oro har, ez dugu arazorik izan". Erabiltzaileek ulertzen dute zein den egoera, badakite neurriak errespetatu egin behar dituztela, eta jende gehienak ondo hartzen ditu langileen aholku eta aginduak. Gazteen jarrera txalotu dute bereziki: "Helduek baino hobeto betetzen dituzte gehienek gure esanak". Maskararen erabilerak sortzen du zeresan handiena, Mintxetako sarreratik partzelan kokatu arte maskara jantzita eramatea derrigorrezkoa delako. "Batzuek ez dute hori ulertzen eta kexatu egiten dira, baina protokoloan horrela jasota dago eta bete egin behar da". Dena dela, herritar askok esan diete uste zutena baino askoz hobeto dagoela antolatuta igerilekuetako funtzionamendua, eta alde horretatik pozik daude langileak: "Uste genuena baino



Koro Sabando harrerako langilea eta Eva Astigarraga soroslea.

askoz hobeto ari gara. Ez da hain zaila izan eta herritarrek ere lana erraztu digute". Beraien iritzi Gipuzkoa osoan ez dago Mintxetako bezalako igerilekurik: "Elgoibarren sekulako zortea daukagu, horrelako berdegunerik ez dagoelako beste inongo igerilekutan".

NORMALTASUN BERRIKO NEURRIAK

- ◆ **Igerilekuetako aforoa:** Handian 100 pertsona sar daitezke orain (lehen, 75) eta txikian, 30 pertsona (lehen, 15). 1,5 metroko segurtasun distantzia mantendu behar da. Patronatuko arduradunek esan dute neurri hauekin aforoa gutxitan gaintutako dela orain eta uste dutela fitxen sistema ez dela beharrezkoa izango. Berdegunean mila lagunentzako lekua dago. Konoen bidez 220 partzela markatu dituzte, eta bakoitzean lau lagun sartu daitezke.
- ◆ **Adin txikikoek sarrera:** Orain arte, 14 urtez gorakoak heldu batek lagunduta joan behar ziren, baina hori kendu egingo dute, eta ohiko arautegiak zehaztutakora itzuliko dira. Beraz, beti egin izan den bezala, 10 urte izan beharko dute umeek gurasoetako baten edo heldu baten laguntzarik gabe sartu ahal izateko.
- ◆ **Muskulazio gelako eta kardio gelako aforoak:** Zazpi pertsonakoa zen lehen, eta orain, 10 pertsonakoa. "Orain arte aforo horrek ez du arazorik sortu, baina malguagoak izatea posible da".
- ◆ **Futbol zelaiko aldagelen erabilera:** Muskulazio eta kardio gelako, atletismoko, padeleko eta tenis pistetako eta ikastaroetako erabiltzaileek futbol zelaiko aldagelak eta dutxak erabili ahal izango dituzte. Aforoa mugatua egongo da (Zazpi pertsona aldagela bakoitzeko aldi berean) eta lau aldagela erabili ahal izango dituzte (Neskak: 4. eta 6. aldagelak. Mutilak: 5. eta 7. aldagelak.). Orduro garbituko dituzte aldagelak.
- ◆ **Igerilekuko aldagelen erabilera:** Igerilekuko erabiltzaileek aldagelak erabili ditzakete, baina dutxak oraindik ezin dira erabili, jende pilaketak saihesteko.



EULALI MORENO

Irakaslea eta ipuin kontalaria

Bizitza erdia darama Eulali Morenok (Elgoibar, 1978) Elgoibartik kanpora. 19 bat urte zituela utzi zuen sorterrria, eta ordutik munduan barrena ibili da, esperientziak bizitzen. Asko bidaiatu du, eta bidaia horietan "bizitza zer den" ikasi du. Azken urteotan Balmasedan bizi da. Irakaslea da ofizioz, eta ipuin kontalaria, afizioz. Zorrozako ikastetxe batean ematen ditu eskolak ijitoen gela batean, eta asteburuetan Erdi Aroko azoketan ibiltzen da umeei ipuinak kontatzen. Koronabirusak bete-betean eragin dio, eta aurtengo uda desberdina izango da beretzat, Erdi Aroko azokak egiteko aukerarik ez dagoelako. Otsailean egon zen Elgoibarren, 'Amalurra' ipuin kontalari gisa, amets egiteko ipuinak kontatzen, eta emanaldiaren ostean hitz egin genuen berarekin.

-AINHOA ANDONEGI -

“Gizarte patriarkalak ezarritako estereotipoak apurtzen saiatzen naiz nire ipuinekin”

◆ Zer moduz zaude? Nola eragin du koronabirusak Erdi Aroko azoketan?

Oso gogorra izan da. Hiru hilabetetan 30 saiotik gora galdu ditut, eta udan ere ezingo dut lanik egin, azokak egitea ez dute-lako baimenduko. Umeak eskolan hasi eta egoera apur bat normalizatu arte ez dut uste lanean hasiko garenik, eta horretaz bizi diren merkatariek lur jota daude. Ez daukate dirulaguntzarik eta egoera zaila bizitzen ari dira. Ni irakaslea ere banaiz, eta nire egoera desberdina da, baina beste batzuk oso gaizki ari dira pasatzen. Ez zait justua iruditzen egoera: terrazetan biltzeko baimena dago, kalean ere jendea normaltasun osoz ikusten da, baina guri ez digute ematen azokak egiteko baimena. Osasunez behintzat ondo gaude, baina bestela gure egoera oso triste da une honetan.

◆ Ipuin kontalari aritzen zara herriz herri Erdi Aroko azoketan, eta estreinakoz Elgoibarren izan zara zure jardunean. Zer sentitu duzu zure jaioterriko publikoaren aurrean?

Oso pozik nago nire gurasoak lehen aldiz etorri direlako ni

ikustera. Lau urte daramatzat ipuin kontalari moduan, eta gaur arte sekula ez dira etorri gurasoak ni ikustera. Ilusio handia egin dit. Uste dut jabetu direla hau ere lanbide bat dela, eta lanbide oso aberasgarria gainera. Umeei mezu bat transmitzen zaie, bizitzan zerbait izatera iristen laguntzeko. Nire saihoek helburu bat dute: euskaraz mintzatzea, aske bizitzea eta norberak bere pentsamenduak libre azaleratzea. Mezu hori transmititzea da niretzako garrantzitsua: aske bizi eta aske sentitzea. Gurasoez gain, lagun pila batekin egin dut topo, jendea nirekin gogoratzen dela konturatu naiz eta oso-polita izan da. Nire lana dela eta ez naiz asko egoten Elgoibarko lagunekin, eta haiek ikustek poz handia eman dit.

◆ Nola hasi zinen ipuin kontalari?

Ni berez irakaslea naiz, baina gaur egun ipuinkontalari izatea afizio bat baino gehiago da niretzat, eta esan dezaket une honetan bi lanbide ditudala. Asteazkenean zehar irakaslea naiz, eta martxoetik abendura arteko ia asteburu guztietan ipuin kontalari lanetan aritzen naiz Erdi Aroko azoketan. Euskal Herriko herri askotan ibiltzen naiz, eta Espainian zehar ere aritzen naiz *boloak* egiten. Iaz Melillan, Murtzian, Leonen, Palentzian eta beste hainbat probintzietan ibili nintzen. Iaz asteburua jende berberarekin bidaiatzen dut, eta azkenean familia handi bat gara. Asko maite dugu elkar eta giro bikaina daukagu gure artean. Nik pila bat gozatzen dut kontu honekin. Orain liburutegi batzuetatik hasi zaizkit deitzen, eta seguruenik hasiko naiz liburutegietan ere saioka eskaintzen.

◆ Espainian zehar ipuinak gaztelaniaz kontatzen dituzu?

Bai, baina beti eramaten dut euskarazko materiala, eta zerbait saiotan *Baga biga higa* abestia ere kantatzen dut. Orain dela bi urte Murtzian nengoela ipuin kontalari saioa hasteko, gizonetzako bat gerturatu zen euskal mitologiari buruzko ipuinak begiratzerako, eta hara nor, eta Alfonso Guillo elgoibartarra! Ilusio handia egin zidan. Euskaldunak asko bidaiatzen dugu, eta euskaldun askorekin egiten dut topo Espainian zehar nabilenean. Batzuk gero etortzen dira Euskal Herriko saioetara ni ikustera.

◆ Ipuinak kontatzeko teknika ikasi egin behar da. Zuk nola ikasi duzu ipuinak kontatzen?

Bakarrik ikasi dut, autodidakta izan naiz horretan. Hegoameriketan bizitzen egon nintzenean malabareak egiten genituen kaleran, baina ni hain txarra nintzen horretan, beste zerbait ikasi behar izan nuela. Beste behin, azoka batean antzerki moduko bat egiten hasi nintzen inprobisatuta, eta antolatzaileak esan zidan ipuin batzuk prestatzen banituen umeentzako, kontratatuta egingo ninduela. Eta horrela hasi nintzen.

◆ Erdi Aroko azoketan kalean kontatzen dituzu ipuinak, baina Elgoibarko saioa kultur kafean izan da. Ba al dago desberdintasunik kalean edo gune ixrietan ipuinak kontatzean?

Bai, ez dauka zerikusirik. Kalean askoz gehiago kostatzen da umeen atentzioa eskuratzea, jende gehiago ibiltzen delako ka-

lean, autoak egoten direlako, zaratak... Nik beti ematen diet aukera umei gustura ez badaude alde egiteko. Kaleko saioetan saiatzen naiz gurasoak ere inplikatzeko ipuinetan. Zaila da, eta asko telefonoari begira egoten dira, baina bueno, saiatzen naiz nagusien arreta ere nireganatzen, eta inplikatzeko direnean oso polita izaten da.

◆ Zein ezaugarri dituzte zure ipuinek?

Estereotipoak apurtzea gustatzen zait ipuinekin. Talde feminista bateko kide naiz, eta gizarte patriarkatuak ezartzen dizkigun estereotipoak apurtzen saiatzen naiz nire kontakizunekin. Lan handia daukagu alor horretan gizarteaz, eta hezkuntzak asko egin dezake. Umeekin lanbide hau egitea oso interesgarria da, eta ipuinen bidez gauza pila bat ikasten dira. Guk geuk ere gure aitona-amonak kontatzen zizkiguten ipuinen bidez jaso genituen jakintza pila bat, ipuinen eta istorioen bitartez jaso dugu kultura eta

Euskal Herriko historiaren berri ere ipuinek eman digute. Neskak arrosaz janztearen eta printzesa izatearen kontu hori apurtzen hasten dut ipuina. Denok berdinak garela aldarrikatu nahi dut, emakumeak ere ausartak garela eta gure ametsak lortu dituzte. Amets eta hegan egiteko ipuinak kontatzen ditut. Nire ustez, ametsen bidez dena lortzen da, eta ez badago ametsik, ez dago ezer ere.

◆ Eta, zein da zure ametsa?

Munduari buelta ematea. Herialde guztiak ezagutzea eta beraien kultura jasotzea.

◆ Kontatzen dituzun ipuinak zuk sortzen dituzu?

Kolore arrosa gorroto duen neska ausartaren ipuina nirea da, bai, neuk sortutakoa. Bigarrena Tartaloren ipuina da, betikoa, baina amaiera aldatu diot. Oso krudela iruditzen zait Tartalo errekan itota hiltzea, eta nik Euskal Herriaren zaindari bilakatzen dut. Haragijale izateari uzten dio, eta ondorioz, ez du gehiago umerik jango. Belarra jango du, eta gure natura zaintzearen mezua zabaltzen dut ideia horrekin. Protagonistak ere bi mutil izan beharrean, neska bat eta mutil bat dira nire bertsioan. Markeliñe sartzen dut, ideiak eta iniziatiba handia dituen neska ausarta.

◆ Irakasle izatea lagungarri zaizu ipuin kontalari lanerako?

Bai, balio dit. Zorrotzako Institutuan egiten dut lan, ijitoekin. Pedagogia Terapeutikoa ikasi nuen, eta iaz proiektu bat aurkeztu nuen Hezkuntzako *Hamaika Esku* programarako, eta irabazi egin nuen. Pedagogia aktiboa daukagu oinarri, eta ikasleak dira protagonista. Beraiek bihurtzen ditut askotan ipuin kontalari, eta batzuetan beste ikastetxe batzuetara joaten gara ipuinak kontatzera. Oso gustura nago beraiekin. Ez da erraza ijitoekin lan egitea, baina nik lortu dut beraiekin konektatzea eta asko maite naute. Argi eduki behar da ijitoekin lan egiterakoan zer irakatsi ahal zaien. Bizitzarako oinarriko baloreak erakutsi behar zaizkie matematikak baino lehen. Harreman oso ona daukat eurekin. Nire ikasle bat ama izan da eta umearen amabitxi izendatu naute.

“Baloreak landu eta transmititzeko tresna oso interesgarriak dira ipuinak”

Gustatuko litzaidake datorren ikasturtean iji-toekin feminismoa lantzea. Beraien kultura oso patriarkala da, eta uste dut ondo etorriko zaiela.

♦ **Zein onura eragiten die umei ipuinak kontatzea?**

Pila bat onura sortzen dituzte ipuinek. Gaur egungo bizitzan prisa da nagusi famulietan, beti korrika gabiltza eta ia ez daukagu umeekin jolasteko denborarik. Oheratu aurretik ipuina kontatzeko unea da umeekin egoteko momenturik politena, eta aprobeixatu egin behar da. Ipuinak umeentzat ezinbestekoak dira. Maitasuna emateko unea da ipuina kontatzeko unea, imaginazioa lantzeko balio du ipuinak, eta gainera, zuk nahi duzun mezua zabaldu ahal duzu, ipuinaren bitartez. Eskola jazarpenaren gaia bera ere landu daiteke oso ondo umeekin ipuinen bitartez. Baloreak landu eta transmititzeko tresna oso interesgarriak dira ipuinak.

♦ **Elgoibartik joan zinenetik, asko bidaiatu duzu. Zer ikasi duzu bidaiari horietan?**

Askok gustatzen zait bidaiatzea eta ahal dudan gehien bidaiatzen dut. Ertamerikako herrialde desberdinak ezagutu ditut eta horrek aberastu egin nau pertsona moduan. Venezuelan bizi izan nintzen garaia ez dut inoiz ahaztuko. Iaz Perun egon nintzen alabarekin, eta Marokora ere joan nintzen. Aurrez ere egon da

“Umeak heztea da ipuinak kontatzea, eta ez dago hori baino lan politagorik”

nintzen Marokon eta berriz itzultzea polita izan zen. Orain Senegalera gonbidatu naute, baina ez dakit joaterik izango dudan. Alabarekin joatea gustatuko litzaidake, konturatzeko hemen zenbat gauza dauzkagun alferrik. Alabarekin ikusten dut gaurko nerabeek zenbat tontakeriari ematen dieten garrantzia: Iphone bat edukitzea edo markako arropa jantzea da eurentzat garrantzitsuena eta askotan ez dira gai horiek gabe pozik egoten. Niri asko gustatzen zait bidaiatzea, eta kultura desber-

dinak ezagutzea oso aberasgarria da pentsamendua zabaltzeko. Gurea ez da beti onena, eta kultura guztiengandik ikasi daiteke zerbait. Gaur egun Balmasedan bizi naiz, baina asteburuetan hara eta hona bidaiatzen dut ipuinekin, eta horrekin pozik bizi naiz. Ipuinei esker bidaiak egiten ditut, jende berria ezagutzen dut, kultura berriak, historia berriak...

♦ **Betidanik izan zara zu antzerki zalea, odolean daramazu.**

Oso saltsera naiz, baina ez pentsa, Elgoibarren oso-oso urduri jarri nintzen, baina ipuinean sartu nintzen berehala lasaitu nintzen. Umeak primeran portatu dira, parte hartu dute eta asko erraztu didate saioa. Askok gustatzen zait lan hau, benetan gozatzen dut, eta umeen ilusio aurpegia ikustea, haiei irribarre bat ateratzea sekulakoa da. Umeak heztea da azken batean ipuinak kontatzea, eta ez dago hori baino lan politagorik.



Eulali Moreno Aita Agirre kultur kafean ipuinak kontatzen.



Manu Sanchez

Izaro Etxegibel



Bi aulkien artean ez da kabitzen saskibaloia jokalaria bat etzanda, ezta saskibaloia jokalaria ez den pertsona arrunt bat ere, kapela luzea edo xistera soinean duela. Ezin dugu bi aulkien artean ohe bat jarri, luzetara ez behintzat; etxeko sofa ere ez; amamareneko jangelako mahaia ere ez da sartzen tarte horretan; bi euskal artzain txakur bata bestearen atzean ere ez, eta ezin dugu auto bat aparkatu bi aulkien artean, karnetik gabeko txiki horietako bat ere ez. Modu horretara irakatsi digute bi metro zenbat den kalkulatzen: distantzia sozial berria deitu diote.

Bi aulki horien artean ez daude bi metro. Metro eta erdi agian? Hori ere ez.

The Lancet aldizkarian egindako berrikuspen sistematiko batean ikusi zuten beste pertsona batzuekin metro bateko baino gehiagoko distantzia fisikoari eutsiz gero koronabirus infekzio-arriskua murriztu egiten dela. Hala, kutsatutako pertsonatik metro batera baino gehiagora kutsatzeko arriskua %3koa zen, eta metro batetik beherako distantzian, %13koa. Are gehiago, metro bakoitzeko kutsatzeko arriskua erdira jaisten zela ondorioztatu zuten. Herrialdetik herrialdera desberdina ei da aholkatutako pertsonen arteko distantzia. Horrela, Txinan, Hong Kongen eta Frantzian metro batekoa da; Australian, Belgikan eta Alemanian metro eta erdikoa. Bakarrik Kanadan, Espainiako Estatuan eta Britainia Handian da bi metrokoa. Zergatik ote? Norberak atera behar kontuak.

Esan dezakegu, beraz, gertuegi daudela bi aulki horiek elkarrengandik; norentzat gertuegi, ordea? Argazkiari begiratu eta inor gutxiri irudituko zaio bata bestetik gertuegi daudela. Horregatik daude hutsik. Ez dago inor bertan eserita.

Gure oroimenean gertu eta presenteei daukagun iraganean bezala bizitzera ohituta gaude oraindik: aulkiak bata bestearen ondoan eta lagunaren irribarrea agerian, maskaraz estali gabe. Deseroso sentitzen gara argazkian bezala kokatutako aulkietan jarrita, haiek ere harrizko zoru irregularraren gainean dauden bezain ezeroso eta ezegonkor.

“Deseroso... haiek ere harrizko zoru irregularraren gainean dauden bezain ezeroso eta ezegonkor”.

LANA.....
Eskaintza

Adinekoak zaintzeko etxeko langilea behar dugu, iraitetik aurrera. Ahal dela euskalduna ☎ 615 006 733

Eskaerak

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat baserriko lanetan, ostalaritzan eta eraikuntza-lanetan. ☎ 632 264 076

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Gauzez ere bai. ☎ 690 134 485

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 631 259 997

Arreta sozio-sanitarioko ikasketak egin nituen, eta pertsonen zaintzan jardun naiz azkenaldian. Hala ere, beste lanetan aritzeko prest nago. Euskalduna naiz. Asteleheneetik barikura, 11:00etatik aurrera. ☎ 688 725 715

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan edo orduka. Esperientzia daukat eta berehala hasteko prest nago. ☎ 632 415 374

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Asteburuetan eta ospitalean ere bai. ☎ 631 465 603 (Carlos)

16 urteko neska elgoibartarra naiz eta umeak oso gogoko ditut. Uztailean umeak zaintzen egingo nuke lan gustura. ☎ 638 863 614

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai. ☎ 643 115 699

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 632 820 901

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 698 865 924

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. ☎ 631 121 148

Haur Hezkuntza eginda daukat, euskalduna naiz eta haurrak zaintzen egingo nuke lan udan. ☎ 689 618 820

Adinekoak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko prest nago. Esperientzia daukat eta berehala hasteko prest. ☎ 632 687 583

Adinekoak zaintzeko eta etxeko garbiketa lanetan aritzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Erabateko prestutasuna. ☎ 631 470 600

Adinekoak zaintzeko eta etxeko garbiketa lanetan aritzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 631 895 039

Adinekoak zaintzeko prest nago, goizez. Euskalduna naiz. ☎ 617 571 210

Edozein lan egiteko prest nago, goizez 8:00etatik 11:00etara, eta asteburuetan, edozein ordutan. ☎ 632 893 515

ETXEBIZITZAK.....

Etxebizitza salgai, duplexa, Bernardo Ezenarro kalean. 82 metro koadro ditu eta gela guztiek kanpoaldera ematen dute, hegoalderantz. Bista onak ditu. Trastelekua, garaje itxia eta igogailua. ☎ 685 722 131 / 635 715 503)

Inmobiliaria batek etxeetan garbiketa lanak egiteko pertsona bat behar du. ☎ 677 054 741

Bi edo hiru logelatako etxea hartuko nuke alokairuan. Premiazkoa da. Erreferentziak ditut. ☎ 681 212 449

Etxea alokatzen dut Kantabrian, Valle de Ruesga herrian, laredotik 13 kilometrotara. 4 logela, eta bi komun. Zortzi laguntzako modukoa. ☎ 688 615 600

BESTELAKOAK.....

Herritarren batek Haritz dantza taldeko erroparen bat baldin badauka etxean, deitu mesedez. ☎ 686 633 178

Lur-zati bat erosi nahiko genuke baratze bat eta txabola txiki bat egiteko. Elgoibarren bertan, edo, Elgoibartik aparte badaigo ere, ez zaigu inporta. ☎ 696 098 042

Lur saila erosiko nuke, Elgoibarren edo inguruetan. ☎ 620 710 139



administradores
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoaldea Berdeko Administrazioaren Erakunde Komunitarioa

ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean hainbat konponketa egin behar dira. Jakin nahi nuke jabe guztiek ordaindu behar al duten eta denek proportzio berean ordaindu behar al duten.

Gastu komunak, edozein motatakoak direla ere, partaidetza-kuotaren arabera ordaindu behar dira, eta horrek ez du zertan berdina izan jabekide guztientzat. Estatutuetan besterik zehaztu ezean edo Jabeen Batzarrak aho batez erabakirik hartu ezean, gastu komun horiek jabeen artean banatzeko beste moduren bat adierazi ezean.

Jabekide guztien artean gastu komunak ordaintzeko betebeharrari dagokionez, kontuan hartu behar da pisuak edo lokalak obra horien ondorioz sortzen diren gastuen ordainketari atxikita daude, legeak gastu orokorretarako ezartzen dituen baldintza berberetan.


Hala ere, litekeena da jabekideen batzarrean adostea obrek eragiten dituzten gastuak banatzea, partaidetza-kuotekin bat ez datorren moduren batean. Horretarako, batzarraren onarpen formala behar da.

Gomendioa. Komunitate batean estatutuetan ezartzen den gastu komun banaketa formala aldatzen bada legezko formalitateak kenduta, kaltetutako jabeak instantzia judizialera jo dezake bere eskubideak defendarazteko.

ASESORIA GO/R
AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Noa**, uztailearen 14an urtetxo bat egingo duzulako. Familiakoekin partez, muxu handi bat. Asko maite zaitugu, printzesa.



Zorionak, **David**, atzo 6 urte bete zenituelako. Ondo ospatu familiakoekin.



Aupa, **Irati**! 9 urte handi! Astelehenean ederki ospatuko dugu! Zorionak eta patxo handi bat etxekoekin partez.



Zorionak, **Ane**, neska handi! Beti pozik, zula! Dagoeneko 3 urte. Muxu potolo bat, maitea.



Zorionak, **Ibai**, uztailearen 7an 4 urte bete zenituelako, eta, zorionak **Oihane**, abuztuaren 10ean 7 urte beteko dituzulako. Muxu asko familiakoekin partez. Maite zaituztegu.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€.
Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrek agurra: 3'50€.
Argazki bikoitza: 6€.
Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



DESKONTU HANDIAK!

- Haurren izaretan
- Sehaska-koltxoietan
- Haurrentzako iragarki laburretan...



Etorri eta ikusi umeentzako produktueta ditugun deskontuak.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olosope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62

Jon Aranao
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 067 337
Asteleheneetik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larribatak: 11:00 - 13:00

Leopoldo zerbizua daukagu.
Deitu ardua hartzen.

aldaz
hortz klinikak

RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850

fisioSmás
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 831 608
www.fisio-smas.com

RPS 183/12

Uzuri
optika audio

Elgoibar
Tel.: 943 740 359

Deba
Tel.: 943 192 192

FUB Fernando
Urizar
Barandiaran

R.P.S.: 32/17

Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitiko
Psikosomatika

Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Bailen kalea, 9, 1. ez. (Bilbo)
urizar1@yahoo.com
615 715 404

leku edero
hortz klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Eparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos

ikus

RPS 65/07

San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

RPS 271/12

ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behe
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

10 BARIKUA

18:30 Odol ateratzeak Elgoibarren. Olaizaga kiroldegian. Txanda hartzeko 623 328 408 telefonora deitu behar da.

12 DOMEKA

10:00 Dolmenen ibilbidea. Karakateko aparkalekuan hasiko da. Izena emateko 657 794 677 telefonora deitu edo info@begi-bistan.com helbidera idatzi behar da.

13 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako jabeakuntza tailerra: 'Bikote arazoak Covid19aren ostean'. Loredi Salegi. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
10 BARIKUA	11 ZAPATUA	12 DOMEKA	13 ASTELEHENA	14 MARTITZENA	15 EGUAZTENA	16 EGUENA	17 BARIKUA
Egunez Arriola	Egunez *Oruesagasti *Barrenetxea	Egunez *Oruesagasti	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia
Iluntzean Arriola	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia
* Fernandez: Herriko enparantza, 4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142		* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638		* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384		Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00 Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar) 943 206 984	



Francisco Salegui Urain

2020ko uztailaren 3an hil zen, 80 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



ETXEBERRIA EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)
635 756 295
629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com


Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.





Maria Teresa Iriondo Uncilla

2020ko uztailearen 5ean hil zen, 92 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Elena Intxausti Muguruza

2020ko uztailearen 8an hil zen, 96 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Zure ondoan bizitza pozgarria izan da. Ez zaitugu ahaztuko.




I. URTEURRENA

Julian Arambarri Echaniz

"Ibarrenea okindegia"

2019ko uztailearen 6an hil zen, 81 urte zituela. Haren oroimenez
I.urteurreneko meza izango da, domekan, uztailearen 12an,
11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren Eliz parrobian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

**Hil zara, baina biziko zara
zu beti gure gogoan.
Itxaropena dugu, biltzeko
berriz zurekin zeruan.**



I. URTEURRENA

Imanol Mendikute Elorza

2019ko uztailearen 11n hil zen, 92 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,
domekan, uztailearen 12an, 11:30ean,
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrobian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

**Zure irribarre goxoa eta maitasuna
betirako izango dira gure artean.**



▶ Gremioen gida

ARROZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@bicna.eus



ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com



Olaso industriagunea, 17 beheka
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

ITURGINTZA



BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
telera@pagoagasa.com

ELGOIBAR



FONTANERÍA
Ibámar
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, beheka B
Elgoibar
Floren Odi: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net



Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522

Faxa: 943 254 523

ongi@ongielgoibar.com

www.ongielgoibar.com



ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheka
Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

ERREFORMAK



Erosario kalea, 15 beheka - Elgoibar

- ▶ Proiektuak eta erreformak
- ▶ Sukaldeak
- ▶ Gremioen koordinazioa
- ▶ Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168

IGELTSERITZA



Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheka - 2. zkoa
Elgoibar

610 226 651

PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com


- ▶ Igeltseritza
- ▶ Pintura

ELEKTRIZITATEA



Uparitzaga, 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999



ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Urruzuno, 14 beheka
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223

lodosofj@gmail.com

Tel.: 943 74 34 90

- ▶ Leihoak
- ▶ Iturgintza
- ▶ Elektrizitatea